# IPARRALDEKO NAFARRAK TUTERAN, XVI. MENDEAN

*Tutera, 2002-X-18*

*Peio J. Monteano,*
*Soziologian lizentziaduna eta Historian doktorea.*

Nafarroa konkistatu eta, handik lasterrera, 1544an, Espainiako erregeordeak eginarazitako dokumentu batek, Erriberako historiari, oro har, eta Tuterakoari bereziki, dagokion prozesurik interesgarrienetariko bat ezagutzeko aukera ematen digu, oso gutxi ezagutzen den horietarikoa: Pirinioetako iparraldean dauden eremu euskaldunetatik etorritako gazte askoren etorrera, alegia.

Izan ere, Espainiako Inperioaren areriorik handienak ziren Frantziaren eta legitimista nafarren mehatxua zela medio, 1544. urtean Tuteran bizi ziren «frantses» guztien errolda egin zen –«frantsesak», hots, Frantziako erregearen mendeko lurretatik etorritako pertsona guztiak–. Erriberako hiriburuko Protokolo Artxiboan gordetzen den zerrenda honen bidez, XVI. mendeko azken hamarkadetan mailarik gorenera heldu zen gertakaria ikus dezakegu (Frantzia astindu zuten erlijio-gerren ostean) eta hurrengo mende amaiera arte iraungo zuena.

1544an, «frantses» horiek Zuberoatik eta Nafarroa Beheretik (Euskaldunen Lurra izena ematen zitzaien orduan) etorritako gazteak ziren, hein handi batean; gazte horiek 1525etik hasita, helduak ziren Tuterara eta Erriberako hiriburuan orduan zeuden azienda handietan artzain jardun zuten.

Demografiaren ikuspuntutik, etengabeko ekarpena ekarri zuen etorrera honek eta, hizkuntzari begira, aldiz, baita Erribera guztian euskararen presentzia ere. Bestetik, euskara hizkuntza zuten Nafarroako iparraldetik edota probintzia euskaldunetatik etorritako populazioaren etorrera ere –detektatzeko zaila bazen ere, hau ere etengabekoa– horien guztien presentziari gehitu behar zaio. Beraz, Zamorako albaitari batek «Erreinuko protoalbeitar» izateko nahia agertu zuenean, nekazari tuterar batek egin zion salaketak ez gaitu harritu behar:

> «euskaldun batzuek abereak sendatzeko eramaten dizkiotenean, horiek ezin ulertzeak lan handia ematen dio».

Iparraldetik etorritako jendearen lekuko dira Erriberan dauden abizen asko: *Sola, Irisarri, Lacarra, Barcos, Jusue, Baigorri, Busunariz, Oses, Mauleon, Monjelos, Chivite, Pegenaute, etab.*

# BAJONAVARROS EN LA TUDELA DEL SIGLO XVI

*Tudela, 18-X-2002*

*Peio J. Monteano,*
*historiador y sociólogo*

Poco después de la Conquista de Navarra, un documento elaborado en 1544 por orden del virrey español nos permite acercarnos a uno de los procesos más interesantes y menos conocidos en la historia de Tudela en particular y de toda la Ribera en general: la llegada de numerosos jóvenes procedentes de las tierras vascohablantes situadas al norte de los Pirineos. En suma, la inmigración procedente de Iparralde.

Efectivamente, en el contexto de la amenaza de los navarros legitimistas y del gran rival del Imperio Español, Francia, se censaron todos los «franceses» –personas procedentes de los territorios bajo control del Rey de Francia– que en 1544 residían en Tudela. Esta relación, conservada en el Archivo de Protocolos de la capital ribera, nos permite conocer en sus inicios un fenómeno que alcanzaría su auge en las últimas décadas del siglo XVI (tras las guerras de religión que sacudieron Francia) y que no cesaría hasta finales del siglo siguiente.

En 1544 la inmensa mayoría de esos «franceses» eran en realidad jóvenes procedentes de Zuberoa y Baja Navarra (por entonces denominada Tierra de Vascos) que habían llegado a Tudela a partir de 1525 y que se ocupaban fundamentalmente como pastores de los inmensos ganados que por entonces poseía la capital ribera.

Esta inmigración supuso una constante aportación demográfica y en lo lingüístico una presencia de la lengua vasca en toda la Merindad de la Ribera, pues a ellos habría que sumar también la menos detectable e igualmente constante llegada de población procedente de zonas vascohablantes como el norte de Navarra o las Provincias Vascongadas. No debe extrañar por tanto que, cuando un veterinario zamorano afincado en Tudela pretendió ser nombrado como «Protoalbeitar del Reino» fuera acusado, precisamente por un labrador tudelano, de que

«cuando algunos vascongados le van a curar algunas bestias, tiene mucho trabajo por no poder entenderles».

Esta inmigración procedente de Iparralde ha quedado patentizada en la abundancia de apellidos toponímicos de esa procedencia que existen en la Ribera: *Sola, Irisarri, Lacarra, Barcos, Jusue, Baigorri, Busunariz, Oses, Mauleon, Monjelos, Chivite, Pegenaute, etc.*